

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2021eko abuztuaren 17ko 2021/286 Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako erabakiaren laburpena, zeinaren bidez 2021eko Amurrioko Artzain Eguneko lehiaketan deialdia, norgehiagoka-erregimenekoa, onesten den

BDNS(Identif.): 580593

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak.

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/580593>).

LATXA ARRAZAKO ARDIEN PROBINTZIA ARTEKO XXVII. LEHIAKETA

Lehenengoa. Onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritako edo Bizkaiko Orduña eta Orozko udalerrietako artzainek parte har dezakete lehiaketan.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen helburua da 2021eko Amurrioko Artzain Eguneko latxa arrazako ardien probintzia arteko XXVII. lehiaketako sarien banaketa arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2021eko martxoaren 11n onetsi ziren, Amurrioko Udaleko Udalbatzaren erabaki bidez, eta eduki osoa urte bereko maiatzaren 28ko ALHAOn (58. zenbakia) argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Hiru ataletako bakoitzean aurkeztutako lau lote onenek izango dute saria, morfologia eta itxurari dagokionez:

- atala: Aharia.
- atala: 5 arkume emez eta arkume ar batez osatutako lotea.
- atala: 5 ardiz osatutako lotea.
- Lehenengo saria: 180 euro eta garaikurra.
- Bigarren saria: 150 euro.
- Hirugarren saria: 120 euro.
- Laugarren saria: 90 euro.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Izen-emateak Amurrioko Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin behar dira, 2021eko irailaren 8ko 13:00ak arte. Horretarako, behar bezala betetako eskaera aurkeztu beharko da parte hartu nahi den lote bakoitzerako, hauek zehaztuta: nekazariaren ustiategiaren zenbakia eta lote bakoitzean parte hartuko duen ganaduaren belarritako-zenbakia, sexua eta jaiotza data.

RUPERTO CASANOVAREN OROITZAPENEZKO XIV. GAZTA-LEHIAKETA**Lehenengoa. Onuradunak**

Ezinbestekoa da Arabako artzaina izatea eta ardi latxez bakarrik osaturiko artaldea izatea (gutxienez 100 abelburu).

Lehiaketan parte hartzen duten artzainek gazta egiteko osasun-erregistroko titularrak izan beharko dute eta, eskatuz gero, hala direla justifikatu beharko dute.

Bigarrena. Helburua

Deialdiaren helburua da Ruperto Casanovaren oroitzapenezko XIV. gazta-lehiaketako sarien banaketa arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2021eko martxoaren 11n onetsi ziren, Amurrioko Udaleko Udaltzaren erabaki bidez, eta eduki osoa urte bereko maiatzaren 28ko ALHAOn (58. zenbakia) argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

- Lehenengo saria: 300 euro eta garaikurra.
- Bigarren saria: 250 euro.
- Hirugarren saria: 200 euro.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Izen-emateak Amurrioko Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin behar dira, 2021eko irailaren 8ko 13:00ak arte. Horretarako, behar bezala betetako eskaera aurkeztu beharko da, hauek zehaztuta: ustiategiaren zenbakia eta osasun-erregistroko zenbakia.

Amurrio, 2021eko abuztuaren 18a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA